



ELÍAS
QUEREJETA
ZINE
ESKOLA



Andréi Tarkovskiren lezio galduak #2

Maiatzak 12
Tabakalera - Z Aretoa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteritza
eta Kirol Departamentua



ORAIN
KULTURA



DONOSTIA ZINEMALDIA
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL



DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL



“Artista batek zergatik behatu beharko luke bizitza, hori hitzez hitz imitatzeke asmoraino? Ez ezazu bizitza imitatu, ez da beharrezkoa”. (Andréi Tarkovski)

Elías Querejeta Zine Eskolak **Andréi Tarkovskiren Lezio galduak** proiektuari ekiten dio berriz. Proiektua honen asmoa da 1975 eta 1981 urteen artean zinemagileak Sobietar Batasuneko hainbat lekutan emandako eskolak berreskuratzea. Topaketa berri honetan, Andréi Tarkovskik egindako iruzkin eta ohar ugari entzungo ditugu, hainbat zinemagileren inguruan: Ingmar Bergman, Robert Bresson, Aleksei German, Otar Iosseliani, Grigori Kozintsev, Lumière anaiak, Sergei Parajanov, Andy Warhol... Eta, horien guztien artean, gai nagusi gisa, arreta berezia eskainiko diogu Tarkovskik Luis Buñuelen zinemagintzari buruz esandakoari. Aukeratutako soinu-grabazioak entzutea izango da saioaren oinarria; oraingoan ere, grabazio horiek orain arte ezagutarazi gabekoak dira. Filmetako “aipuak”, bestelako esku-hartze puntualen arteko hartu-emana sortuko dutenak, hiru saiotan egin ziren, 1977an.

Bigarren saio honetan, **Cristina Álvarez** eta **Adrian Martin** saio-idazle eta zinema-kritikariek hausnarketa egingo dute hainbat zuzendariren lanetan (Tarkovski, Bergman, Bresson, Buñuel eta Parajanov) kanpaiak entzuteak duen funtzio informatibo edo dramatikoaz eta horrek sortzen duen paisaia

musikalaz, egile horien hainbat pelikulatoko zatiak biltzen dituen bideo-saiakera baten bidez. **Julen Abasolok** kanpaien eta danborren soinuan oinarritutako sinfonia bat joko du, Arientzako (Aretxabaleta) Kanpai Jole Eskolako kideekin eta **Xabier Erkizia** soinu-artistarekin batera. **Pilar Carrera**, Madrilgo Carlos III Unibertsitateko errektoreordeak, *Andréi Tarkovski. La imagen total -Andréi Tarkovski. Erabateko irudia-* (Fondo de Cultura Económica, 2009) saiakerako egileak, zinemagile errusiarra eta Sergei Parajanoven zinearen arteko harremanez hitz egingo du. **Till Fellner** pianista austriar ezagunak, Luis Buñuelen zinemagintzan musikak duen erabilerari buruzko saiakera idatzi duenak (*Subversion und stille -Subertsioa eta isiltasuna-*), hitzaldia egingo du, Johann Sebastian Bach hainbat konposiziorekin lagunduta. **Giuseppe Lancik** ere parte hartuko du, argazki-zuzendari eta besteak beste, Marco Bellocchio, Vittorio eta Paolo Taviani eta Nani Moretti zuzendarien kolaboratzailea eta Tarkovskirekin berarekin, 1983an *Nostalghia* filma egin zuena. Amaitzeko, **José Manuel Mouriñok** ere hartuko du parte; saio-idazlea, zinemagilea eta Tarkovski Institutuaren ordezkaria eta berreskuratutako grabazioen ikerlarietako bat da bera.

PROGRAMA | TABAKALERA - Z ARETOA

Lehen zatia

11:00 - 11:10 Aurkezpena: Carlos Muguro (EQZEren zuzendaria) eta José Manuel Mouriño.

11:10 - 11:30 Soinu artxiboen lehen partearen entzunaldia.

11:30 - 12:20 "Ekaitza Errusiatik urrun filmatu" (Giuseppe Lanci).

12:20 - 12:30 Atsedenaldia.

12:30 - 12:55 Soinu artxiboen bigarren partearen entzunaldia.

12:55 - 13:20 "Kanpaien soinuaz jositako ametsen segida" (Cristina Álvarez eta Adrian Martin).

13:20 - 13:50 "Denbora haustea" (Arientzako Kanpai Jole Eskola, Xabier Erkizia).

13:50 - 14:00 Lehen zatiaren itxiera.

Bigarren zatia

16:00 - 16:05 Aurkezpena.

16:05 - 16:30 Soinu artxiboen hirugarren partearen entzunaldia.

16:30 - 17:15 "Tarkovski eta Paradjanov: Medusaren begirada" (Pilar Carrera).

17:15 - 17:45 Soinu artxiboen laugarren partearen entzunaldia.

17:45 - 18:00 Atsedenaldia.

18:00 - 18:50 "Ohar labur batzuk Tarkovski eta Buñuelen filmen musikaren inguruan" (Till Fellner).

18:50 - 18:55 Jardunaldiaren amaiera.

Hurrenez hurreneko topaketen bidez, **Andréi Tarkovskiren lezio galduek** jardunaldietara bertaratzen diren lagunek aukera izango dute errusiar maisuak 1975 eta 1981 artean eman zituen zinema-ikasgaietan entzule gisa parte hartzeko. Saio horiek ez dira mugatuko erregistroak entzutera bakarrik. Nahiz eta zaharberritutako grabazioen edukiak ezarriko dituen topaketen izaera, saio horietako bakoitza esperientzia edo azterketa-kasu independente bat bezala formulatzen da. Horrela, proiektuak Andréi Tarkovskiren ikasgaietarako hurbilpen batzuk taxutuko ditu, zeintzuetan era askotako espezialistek, ikertzaile eta diziplina anitzetako artistek proposatuko baitituzte errusiar zinemagileak formulatutako ideien eta erlazioen analisi paraleloak.